

FUNTSEZKO ELKARTEAK

1-HORNITZAILEAK:

Gure aurpegi-ezagutza sistema sortzeko, zenbait makina behar izango ditugu. Horretarako, hornitzaileekin bi urteko akordio izango dugu eta akordio honen bidez enpresak makinak hornituko dizkigute. Makinaria horien bidez, produktuaren ekoizpena azkarragoa izango da eta, beraz, denbora berean aurpegi-ezagutza ate gehiago sortu ahal izango ditugu.

2-FUNTSEZKO BAZKIDEAK:

Gaizka: Gure enpresako biltegiko zuzendaria izango da. Biltegian sartu eta ateratzen diren material guztiak arakatuko ditu, denak ondo egon daitezzen. Objektuen bat akastuna baldin bada, kendu egingo da biltegitik. Gainera, behar diren material guztiak eskatu eta jasoko ditu, eta produkzioarako behar direnak bidali egingo ditu.

Lander: Hasiera batean, ateen instalazioan lan egingo du, ateen software eta sarrailak etxeetan instalatzen kontratatutako hainbat langileekin batera eta haien burua izango da.

Aitor: Marketing eta publizitate zuzendaria izango da. Gure produktua nola salduko den erabakiko duena. Publizitatea gehienbat sare sozialetan burutuko da, baina baita kalean ere. Gainera, gure sare sozialen 'community manager'-a izango da, hau da, sare sozialak eramango dituena. Horretaz gain enpresaren diseinuaren ardura izango du.

Peio: Finantziario eta diruaren kudeaketa izango da bere ardura. Inbertsioak aztertu eta burutu eta enpresarentzat irabaziak lortzea izango da bere helburu nagusia. Baita ere, enpresaren gastuak komunikatuko dizkio taldekideei, honela talde osoak jakingo du zertan edo zertan ez gastatu dirua.